

1. gidoia: Hesiak apurtzen

Laburpena

Gidoi hau aldaketa nabarmen bat izango duen eskolako futbol-txapelketa baten testuinguruan garatzen da: txapelketa mistoa izango da aurrerantzean, genero-berdintasuna sustatzeko. Eszenetan zehar, protagonistek beren ikaskideek aldaketa horren aurrean dauzkaten eragozpenak ezagutuko eta eztabaidatuko dituzte. Narratibak erakusten du ikasleak nola joaten diren egokitzen eta, lankidetzaren eta elkarrekiko errespetuaren garrantzia azpimarratuz, nola aurkitzen dituzten torneoa inklusiboa izateko moduak.

Helburu pedagogikoa

Gidoi honen helburu pedagogikoa da eskola-kirolean genero-berdintasuna eta inklusioa sustatzea. Interakzioen eta elkarrizketen bidez, ikasleak denon trebetasunak eta ekarpenak errespetatzeak eta baloratzeak duten garrantziaz sentsibilizatzea da helburua, haien generoa edozein dela ere. Gainera, lankidetzak eta moldagarritasunak hezkuntza-ingurunean hesi sozial eta kulturalak gainditzeko duten garrantzia azpimarratzen da.

| Eszena | Deskribapena | Elkarrizketak |
|------------|---|---|
| E00 | Entzunaretoa. Ainararen offeko ahotsak testuinguruan kokatzen gaitu. Zuzendariak aurtengo futbol-txapelketa | Izenburua: Hesiak apurtzen AINARA (OFF): Urtero antolatzen den eskolako futbol-torneoaren aurkezpenean gaude. Niri ez zait bereziki gustatzen, baina Andoni eta Naroa pozarren daude... Beti hartzen dute parte! |

| | | |
|---------------------------|--|--|
| | <p>aurkezten du eta, aurreko urteetan ez bezala, mistoa izango dela azaltzen du.</p> | <p>ZUZENDARIA: Kaixo denoi! Gaur, ikastetxeko futbol-txapelketaren laugarren edizioa aurkezten dizuegu. Aurten, genero-berdintasuna sustatzeari begira, aldaketa garrantzitsu bat egingo dugu txapelketan. Hemendik aurrera, txapelketa mistoa izango da; beraz, neskak eta mutilak egongo dira talde parte-hartzaileetan. Espero dut guztiok gozatuko duzuela formatu berri horrekin!</p> |
| E01 | <p>Ikasleak kexatzen hasten dira (Plano orokorra). Ikasle batzuk kexaka daude; gero eta zalaparta handiagoa sortzen da. Kuadrillara pasatzen gara. Goranek esaten du Izar beroa dagoela eta bere argia gorria bizi-bizia dela, giroko tentsioaren aurrean erreakzionatzen arituko balitz bezala. Egoera lasaitzen saiatuko direla esaten dute.</p> | <p>ANDONI: Dirudienez, torneo mistoaren ideia ez zaie denei gustatu.</p> <p>ELOI: Giroa asko berotzen ari da. Ez dut ulertzen jendeak nolatan erreakzionatzen duen horrela denontzat ona den aldaketa baten aurrean.</p> <p>GORANE: Aizue, lagunok... Izar gori-gori dago!</p> <p>NAROA: Ikasleen egoeraren aurrean erreakzionatu egin duela ematen du!</p> <p>AINARA: Egoera baretzeko balioko digu, beharbada. Goazen ikaskideekin hitz egitera; ea ados jartzerik lortzen dugun.</p> |
| E02 IBAI | <p>– Mutil batek ez du neskekin jokatu nahi, okerrago jokatzen dutela iruditzen zaiolako.</p> | <p>ANDONI: Zergatik ez duzu txapelketa mistoa izaterik nahi?</p> <p>A MUTILA: Ez dut ulertzen zergatik aldatu behar den. Txapelketa horrelakoa izan da beti; normalena hori da.</p> |

| | | |
|---------------------------------------|---|---|
| | | <p>A MUTILA (DS): Nik ez dut neskekin jokatu nahi. Futbolaz ez dakite ezertxo ere. Nik irabazi egin nahi dut, kosta ahala kosta.</p> <p>NAROA: Zer pentsaturik eman diogu, behintzat.</p> <p>ANDONI: Ez al zaizu ondo iruditzen neskek mutilekin jokatzeari?</p> <p>A MUTILA: Neskek badaukate beren txapelketa; nire ustez, ez dago ezer aldatu beharrik.</p> <p>ANDONI: Neska batzuek mutilek bezain ondo edo hobeto jokatzen dute; Naroak, adibidez.</p> <p>A MUTILA: Tira... Neska gutxi daude futbolean, baina batzuek ondo jokatzen dute.</p> <p>ANDONI: Helburua ez da irabaztea; garrantzitsuagoa da dibertitzea.</p> <p>A MUTILA: Futbola da... eta txapelketa bat da. Onena izateak besterik ez du axola!</p> |
| <p>E02 – EDURNE</p> | <p>Neska batek ez du futbolean mutilekin jokatu nahi, oso erasokorrak direlako.</p> | <p>GORANE: Ez duzu txapelketa misto batean parte hartu nahi?</p> <p>B NESKA: Futbolean jokatzeari gustatzen zait, baina ez mutilekin; izugarri lehiakorrak eta bortitzak dira.</p> <p>B NESKA (DS): Ba al dakizue baloikada batek nolako mina ematen duen?</p> <p>AINARA: Beldurtuta dauden beste neska batzuk ere animatzea espero dut!</p> <p>AINARA: Orduan, ez parte hartu.</p> |

| | | |
|-------------------------------------|--|---|
| | | <p>AINARA: Eta arbitroak zorrotzagoak balira?</p> <p>B NESKA (DS): Beharbada, baloi arinago batzuk erabil litezke...</p> <p>AINARA: Beharbada, txapelketa bat izango ez balitz...</p> <p>B NESKA: Berdin da; mutilak beti dira lehiakorrak, txapelketa izan edo ez izan.</p> |
| <p>E02 – XABI</p> | <p>Mutil batek ez du futbolean jokatzeko, baina beste jarduera batzuei espazio zabalagoa ematea nahi du.</p> | <p>ELOI: Zer iruditzen zaizu txapelketan egin duten aldaketa?</p> <p>C MUTILA: Niri ez zait futbola gustatzen. Berdin zait. Beste jarduera asko egin litezke.</p> <p>AINARA: Artikulu bat idatziko dut institutuaren webgunean eta proposamen bat egin diezaiokegu Eskola Kontseiluari.</p> <p>C MUTILA: Hori ondo legoke!</p> <p>ANDONI: Futbol-txapelketak bertan behera uztea proposatzen duzu?</p> <p>C MUTILA: Ez dut uste irtenbidea ezer bertan behera uztea denik; nire ustez, hobe da gehitzea, kentzea baino.</p> <p>ELOI: Ikastetxean debekatu egingo zenuke futbola?</p> <p>C MUTILA: Debekatu ez. Jolastokiko espazioa hobeto banatzea nahi nuke. Era guztietako jarduera inklusiboetarako espazioa egotea nahiko nuke, ez soilik futbolerako.</p> |

| | | |
|----------------------------|--|--|
| | | <p>AINARA: Zer-nolako txapelketa gustatuko litzaizuke zuri?</p> <p>C MUTILA: Kontua ez da niri zer gustatzen zaidan. Kontua da ikasle guztiek beren espazioa izatea eta inklusiboa izatea.</p> |
| E03 MIREN | – Neska batek beste txapelketa-mota batzuk antola daitezela nahi du. | <p>AINARA: Gaizki iruditzen al zaizu txapelketa misto bat egitea?</p> <p>D NESKA: Niri ez zaizkit txapelketak gustatzen.</p> <p>AINARA: Beste txapelketa-mota batzuk nahiago dituzu?</p> <p>D NESKA: Bai, futbolaz gain, beste jarduera asko daude, eta horiek ere beren lekua eduki behar lukete.</p> <p>AINARA: Zer-nolako jarduerak antolatzea gustatuko litzaizuke?</p> <p>D NESKA: Xake-txapelketak, debate-torneoak edo arte-lehiaketak antola litezke.</p> <p>AINARA: Txapelketak gustuko ez badituzu, zeri ematen diozu garrantzia?</p> <p>D NESKA: Niretzat, denak integratuta sentitzea da garrantzitsuena. Jarduera-aniztasuna zabaltzeko proposamena egin diezaiokegu Eskola Kontseiluari.</p> |
| E03 KOLDO | – Mutil batek ikasle guztiak integratuta sentitzea eta kirol-jarduera ez-lehiakorrek antolatzea nahi du. | <p>ANDONI: Zuri zer iruditzen zaizu txapelketa mistoaren ideia?</p> |

| | | |
|--|---|--|
| | | <p>E MUTILA: Ondo dago txapelketa misto bat antolatzea, baina kontuan hartu behar dira gaitasun bereziak izanik parte hartu nahi dutenak ere.</p> <p>AINARA: Kirol-jarduera ez-lehiakor gehiago antolatzea gustatuko litzaizuke?</p> <p>E MUTILA: Bai. Jende askori ez zaio lehia bizia gustatzen, baina kiroletan parte hartzea bai, ordea.</p> <p>ANDONI: Zein jarduera proposatuko zenituzke?</p> <p>E MUTILA: Ibilaldiak, yoga-saioak edo aisialdi-kirolak antolatzea proposa dezakegu.</p> <p>AINARA: Zuk zeri ematen diozu garrantzia?</p> <p>E MUTILA: Garrantzitsua da denek izatea aukera gozatzen duten jarduera fisikoetan parte hartzeko.</p> |
| <p>E03 – Epilogo</p> | <p>Muntaketa, futbol-txapelketarekin eta ikasleak entzunaretoan proposamenak aurkezten.</p> | <p>OFF-EKO TESTUA: Futbol-txapelketa aurrera atera da, eta, hasierako kexak gorabehera, arrakasta handia izan du. Kuadrillaren eraginari esker, ikasleak Kontseiluaren aurrean proposamenak aurkeztera animatu dira, askotariko jarduera inklusiboak sustatzeko eta ikastetxean denentzako espazioa egoteko.</p> |